

2008-07-21ko EZOHIZKO UDALBATZA

Iruran, bi mila eta zortzigarren urteko uztailaren hogeita batean, arratsaldeko 19:30etan, udaletxeko udalbatza-aretoan, ezohizko batzarra egin du Udalbatzak, alkatea –Marimi Ugalde Zabala andrea– buru duela.

Zinegotzi hauek izan dira bileran: Jose Luis Olano Zubeldia jauna, Agustin Zubeldia Iraola jauna eta M. Jesus Otaño Zumeta andreak.

Ez dira etorri eta ezin etorria adierazi dute: Eugenio Loidi Garmendia, Gregorio Lasa Etxezarreta eta Aitor Lasa Olalde jaunak.

Udaleko idazkariak, Miguel Antonio Arizabalaga Brusin jaunak, egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratua baita.

LEHENBIZIKO GAIA

BILKURAREN PRESAZKO IZAERA BERRESTEA.

Deialdiaren gai nagusiaren garrantzia eta interes publikoaren pisua kontuan hartuz, Udalbatzak aho batez erabaki du Bilkuraren presazko izaera onartzea.

BIGARREN GAIA

IRURAKO UDAL PILOTALEKUA BERRURBANIZATZEKO LANAK

ESLEITZEA, BADAGOKIO (LEHEN FASEA).

Enkante-mahaiak ondorengo proposamena aurkeztu du:

“Udalbatza honek, 2008ko ekainaren 12ko batzaraldian erabaki zuen ondorengo espedientearen presazko izapidetzea hasia; “Irurako frontoiaren ingurunea berrurbanizatzea (1.fasea) eta dagokion baldintzen zerrenda onartzea.

2008ko ekainaren 18an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu ondoren, proposamenak aurkezteari ekin zioten 2008ko ekainaren 19tik uztailaren 3a arte.

Guztira 11 enpresa aurkeztu dira enkantean.

Esleipen-irizpideei dagokionez, aipatu behar da baldintzen zerrendako 16. artikuluan prezioa eta amaierako epea adierazten direla baina ez dela beste ponderazio sistemarik finkatzen.

Ikusita dagozkion txostenak.

Kontratazio mahaiak aho batez erabaki du:

Lehenengoa.- Aurkeztutako eskaintzetatik, ondorengoak baztertzea, jarraian adierazitako arrazoiengatik:

ENPRESA:

ARRAZOIA:-

Otegi-Gaztañaga.

Epez kanpo aurkeztea.

Karber S.A.

Enkante-prezioa baino handiagoa.

Bigarrena.- Baldintzak betetzeagatik onartzea ondorengo enpresak, izenarekin batera prezioa eta amaiera-epea adieraziz (Kopiatu).

Hirugarrena.- Fresneda E.M.ri esleitzea proposatzea,iritzi delako prezioa eta obra bukatzeko epea baldintza egokienetan aurkezten dituen dela.

Laugarrena.- Iriztea aurreko eskaintza ez dela zuhurtzia-gabekeriaz egindako murrizketa.

Bosgarrena.- Proposamena udalbatzara eramatea lanak behin behineko izaerarekin onartzeko.

Hori dela eta, udalbatzak, ondorengo erabaki du aho batez:

Lehena.- Udal frontoiaren ingurunea berrurbanizatzeko lanen Behin behineko esleipena egitea, (1.fasea) Fresneda Eraikuntzak E.M.ri, 195.808,53 Eurogatik eta 7 asteko epean egitekotan.

Bigarrena.- Esleipendunak 9.790,43€-ko behin betiko bermea ipini beharko du, honen berri jasotako biharamunetik zenbatzen hasi eta 10 eguneko epean.

Hirugarrena.- Aipatutako agiriak aurkeztutakoan behin betiko esleitzeari ekingo zaio erabaki hori alkatetzarengan eskuordetzen delarik une honetan.

Laugarrena.- Aurkeztutako enkantezale guztiei jakinaraztea erabaki hau. Erabaki hau izapidetza soil da. Ez dagokio beraren aurkako errekurtsorik.

HIRUGARREN GAIA

IRURAKO ELIZARI LAGUNTZA EMATEA EGINDAKO KONPONKETAK ORDAINTZEKO.

Irurako Parrokia birgaitzeko lanetarako dirulaguntza eskaera ikusita, udalbatzak aho batez erabaki du 30.000€-ko dirulaguntza ematea.

LAUGARREN GAIA

ONARTZEA, BADAGOKIO, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIARI DIRU- LAGUNTZA ESKATZEA IRURAKO HIRIGINTZAKO PLANGINTZA AURRERA ERAMATEKO.

Gipuzkoako Foru Aldundiak onartu ditu 7.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerriei diru-laguntzak emateko oinarri erregulatzailak, udal-planeamenduko hirigintza-tresnak sortu eta idazteagatik sortutako gastuak finantzatzeko; 2008ari dagokion deialdia ere onartu du.

Udal honek amaitu ditu Irurako Udal-planeamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren idazte eta egite lanak. Berrikuspen hau 2008ko ekainaren 13an onartu zen behin betiko.

Beraz, Udalbatzak aho batez erabaki du honakoa:

Lehena.- 10.440 €-ko diru-laguntza eskatzea 2008an zehar ordaindu beharreko gastuengatik; kopuru hau dokumentu hori egiteagatik sortutako gastuen %15 da.

Bigarrena.- 50.000 €-ko diru-laguntza eskatzea aurreko ekitaldietan

ordaindutako gainerako gastuak finantzatzeko, 59.169 €-ko gastua izan dena; gastu hauek sartzen dira aipatutako dokumentua egin eta idazteagatik sortutako gainerako gastuen guztizkoan.

BOSGARREN GAIA

2007ko AURREKONTU OROKORRAREN LIKIDAZIOA.

2008ko uztailaren 17ko 101/08 zka.dun alkatetzaren erabakikuntzaren berri ematen da:

“2007ko Aurrekontuen ekitaldia amaituta, bere likidazioa aurkeztu behar da, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 49. artikulua arabera, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuari buruzkoa, Aurrekontu Orokorren likidazioa onartzea alkateari dagokio, kontu-hartzailetzak txostena egin ondoren, eta gero Udalbatzari emango zaio horren berri.

Irurako Udaleko idazkari-kontuhartzailearen txostena ikusi ondoren,

EBAZTEN DUT:

Lehena.- 2007ko Udal honetako Aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2007-12-31n: 498.424,57 €

2.- Kobratu gabeko saldoak, 2007-12-31n: 166.053,79 €

Aurrekontuko zordunak: 161.057,11 €

Aurrekontuz kanpoko zordunak: 4.966,68€

- Aplikatu gabeko kobrantzak: 0,00 - €

3.-Ordaindu gabeko saldoak,2007-12-31n: 566.422,54 €

Gastuen aurrekontuko hartzekodunak: 162.705,19 €

Sarreraren aurrekontuko hartzekodunak: - €

Aurrek. kanp. hartzekod.: 403.685,03 €

Aplikatu gabeko ordainketak: 32,32 €

4.- Diruzaintzako gerakin gordina (1+2+3): 98.055,82 €

5.- Saldo kobragaitzak:4.594,03 €

6.- Diruzaintzako gerakin likidoa (4-5): 93.461,79 €

7.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina 14.000,00€

8.-Gastu orokorretarako diru-zaintzako gerakina (6-7): 79.461,79 €

9.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza: (937,85) €

10.- Aurreko ekitaldian likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza: (12.222,14) €

11.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik: 0,00 €

12- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik: 0,00 €

13.- Aurrekontu emaitza (9+10+11+12): (13.159,99) €

14.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak: - €

15.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak: - €

16.- Kreditu gerakinak, guztira (14+15): - €

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49. artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udal Batzarrari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.”

SEIGARREN GAIA

ONARTZEA, BADAGOKIO, 2008KO AURREKONTU OROKORRAREN LEHEN KREDITU ALDAKETA.

2008 urteari dagokion ekitaldian, beharrezkoa ikusten da urtealdi honi dagokion Lehenengo Kreditu Aldaketa Espedientea aurrera eramatea, aurrekontua eta egindako gastuak doitzeko. Partida ezberdinetan jasandako gastu handitzeak,

beste partida batzuetan aurrikusita zegoen gastua ez exekutatzean sortzen den doiketa egitea proposatzen da, hots, transferentzia bidezko kreditu aldaketa (Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Araua, 29. artikulua):

KAPITULUA	Aurrikusia	Errealak	Ezberd.
6.- Inbertsio errealak	546.600	601.600	55.000

Guztira
Seigarren kapituluko gorabeherak: 55.000.- €

Gastu hauen gehikuntzaren arrazoi ezberdinen zergatia zein den azaltzerakoan, kapituluaren ikuspegia kontuan hartuz aztertzea komeni da:

Gastuen atalak jasandako gorakada hori, finantzatzeko asmoz, gastu jakin batzuen murriztapena egitea proposatzen da:

KAPITULUA	Aurrikusia	Errealak	Ezberd.
6.- INBERTSIO ERREALAK	546.600.- €	456.600.- €	90.000.- €
601.010 Azpiegiturak eta urbanizazioak	295.000.- €	225.000.- €	70.000.- €
642.430 Arau subsidiarioen berrikuspena	35.000.- €	15.000.- €	20.000.- €
Guztira			90.000.- €

Ikusita idazkari – kontuhartzailearen txostena, Udalbatzak aho batez erabaki du Lehenena.- Udal honen 2007ko aurrekontuaren bigarrenengo kreditu aldaketa espedienteari behin behineko onarpena ematea gastuen murriztapen modalitatean.

Bigarrena.- Indarrean dagoen legediak xedatutakoa betez, aipatu espedientea jendaurrean erakusgai jarri eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean publikatzea, espedientea aztertzeke eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteke.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

Aztertzeke beste gairik ez dagoenez, 20:45ean eman da amaitutzat bilera. Han esandako guztia aktan jaso eta idazkari nauzuen honek EGIAZTATZEN dut.